




Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak

“Euskal antzerkiaren funtsak liburutegi eta artxibategietan”

2014ko Azaroak 20, osteguna.

Koldo Mitxelena Liburutegiaren egoitza, Donostia.

Goizeko 10:30ean

 **Euskal Museoko Liburutegia.**
Marie-Hélène Déliart.

BAIONAKO EUSKAL MUSEOA

EUSKAL MUSEOAREN LIBURUTEGIA

Gaztelu Berria
Paul Bert plaza
64100 Baiona

05-59-59-57-50 mh.deliart@musee-basque.fr
05-59-59-57-54 a.farabos@musee-basque.fr

HARRERA:

Liburutegiko idazlanen kontsulta Gaztelu Berrian egiten da, **betiere lehenago deituz gero**. Liburutegia zabalik dago publiko orori, ikasle eta ikerleei, izen-emate beharrik gabe. Idazlanak zuzenean eskura edo biltegietan daude, eta kontsulta bertan egin behar da.

ON LINE KATALOGOAK Euskal Museoaren liburutegiko bilduma informatizatuak erakusten ditu.

ONDARE FUNTSA:

Euskal Museoaren liburutegia Frantziako zaharrena eta inportanteena da euskal gaiei buruz. Liburu bitxiak, bakanak eta zaharrak (gehienbat XVI. eta XIX. mendeen bitartekoak) ugari dituenz gero, erreferentzia-bildumaren estatusa erdietsi du.

Museoa 1922an sortuz geroztik, objektuak ez ezik liburuak ere biltzen hasi zen, lehenik eta behin, museoak berak jorratzen zituen gaiak dokumentatu ahal izateko. Beste bildumak bezala, dohaintzei esker funts hura berehala handitu zen. 1962tik aitzina, Jean Haritschelhar zuzendari berriak eskurapenak egiteko politika gogotsua garatu zuen. Hein handi batean, haren ondorioz lortu du liburutegiak oraingo ospe ona.

Harekin batera, liburutegi pribatuetatik ere sekulako dohaintzak jaso zituen, balio handiko idazlan bitxiak, bilduma osoaren kalitatea eta aberastasuna nabarmen joritu zutenak: Manu de la Sotaren liburutegia (1965), François Faurerena (1969), M. de Abrisquetarena (1985)

Funtsa:

20.000 liburu

650 aldizkari/egunkari izenburu

200 eskuizkribu

EUSKAL MUSEOAREN BILDUMA IKONOGRAFIKOAK

Euskal Museoak 50.000 agiri ikonografiko baino gehiago dauzka: argazkiak, estanpak, afixak, mapak eta planoak...

Funts hau digitalizatzeko prozesuan da. On line kontsultarako: **musee-basque.com**

Euskal antzerkia Baionako Euskal Museoan

1924an sortu orduko, Baionako Euskal Museoaren arduradunek liburutegi bat osatzeko asmoa erakutsi dute. Iparralde osoan emaitzen eskaera edatu dute biltzeko bai liburu, aldizkari edo etxetan gelditzen ziren artxiboak.

1962an, Jean Haristchelhar Baionako Euskal museoaren zuzendaria izendatua da eta bere xedea da, ikusiz objektuen bilketa egin izan dela, dokumentazio aberats bat osatzea ere museoan, euskal gizartea ikertzeko. Emaitza apartekoak izan dira eta heien artean aipatu behar da Manu de la Sota-ren liburutegia.

Garai hortan, Baionako Euskal Museoa Iparraldeko kultur gunegarrantzitsua zen ere, nun euskal kultur elkarteak biltzen ziren eta nun edonor euskaltzale uzten zituen dokumentuak : liburu, aldizkari, argazki, artxibo etabar...

Orai, liburutegian, Iparraldeko euskal antzerkiari lotutako dokumentazioan aurkitzen ditugu antzerki kaier batzu :

- Piarres Larzabelen 22 obra
- Daniel Landart-en 6 obra
- Telesforo de Monzonen 3 obra
- Piarres Lafitten « Egiatzko argia » obraren eskuiskriboak , 1922tan idatzia
- Baita ere Jean-Pierre Mendiboure, Paul Guilsou-ren obra bat.

Museoaren fototekan, ikus daiteke ere “Matalaz”, 1968an Baionan emandako ikusgarriaren 30 argazki baita ere 33 argazki “ Orreaga” Roger Idiart et Piarres Larzabal-en antzerki-pastoralenak, Donibane Lohitzunen 1964an emana.

Nola ez aipatu pastoralak Baionako Euskal Museoaren bildumetan : 500 bat dokumentu : argazki, postalak, diapositibak, afitxak, artxibo eta bereziki 18. eta 19. mendeko 30 pastoralak kaierak orai Bilketa proiektuari esker digitalizatuak .